



Esp.kodea: 2020HPOA0001

Gaia: HAPOren hausnarketa txostena Arrasateko hirigintza egoeraren inguruan / HAPO; informe para la reflexión sobre la situación urbanística de Arrasate
Hasiera eguna: 2020/12/03

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2021eko otsailaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“HAPOREN EGOKITZAPENA, HIRIGINTZA ARAUDIAREN 4. ARTIKULUAREN ARABERA (2020HPOA0001).

Udal Plenoak, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE), aurkako botu 1ekin (ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak) eta 8 abstentziorekin (EH BILDU), Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udal Plenoak 2016ko martxoaren 22an erabaki zuen behin betikoz onartzea HAPO Arrasateko Hiri Antolamenduaren plan orokorra. Erabaki hori, hirigintzako arauekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko maiatzaren 31n, 102. zenbakian.

HAPOren 4. artikulua, besteak beste hurrengoia jasotzen du:

“(…)

Udalak lau urtean behin berrikusiko du plan orokor honen edukiaren jarduera-programa. Programaren berrikusketa hori ezin da plan orokorraren berrikuspentzat edo aldaketatzat jo.

(…)

Higiezinaren merkatuan aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean eta, edozein kasutan, gutxienez lau urtean behin, Udalak berrikusi eta, hala bada gorkio, eguneratu egingo du plan orokorraren haztapen-koefizienteen taula eta edukia, bai bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa-txostenean, bai hirigintza-araudi honen 36. artikuluan. Taularen eguneratze hori ez da plan orokorraren berrikuspena edo aldaketa. (...).

Hori horrela bada, eta kontuan izanda 4 urte igaro direla dagoeneko behin betiko onespentik, HAPOk eskatutako egokitzapenak burutzeko dokumentua idatzi dute Udalaren Zerbitzu Teknikoek.

Kodea	H21/00139	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKVTW.L.e0iY
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKVTW.L.e0iY		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2020HPOA0001

Gaia: HAPOren hausnarketa txostena
Arrasateko hirigintza egoeraren inguruan /
HAPO; informe para la reflexión sobre la
situación urbanística de Arrasate
Hasiera eguna: 2020/12/03

Dokumentu horrek, alde batetik, Jarduketa programa berria datozen 8 urteetarako jasotzen du eta. Egokitzapen horiek memorian dute eragina; baita ere antolamendu esparruen fitxetan jasota dagoen egitarauan.

Bestetik, dokumentuak Ponderazio koefizienteak, bai erabilera nagusiaren arabera, bai kokapena kontuan izanda, jasotzen ditu. Horren inguruko egokitzapenek azterketa ekonomikoan dute eragina, hirugarren kapituluko 6. eta 7. tauletan; baita ere hirigintza araudiko 36. artikuluan.

Aurrekoa ikusirik, hauxe proposatu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak:

I.- Hasiera batean onartzea HAPO Arrasateko Hiri Antolamenduaren plan orokorraren egokitzapen dokumentua, 4. artikuluan arabera idatzi dena.

Dokumentu horrek, alde batetik, Jarduketa programa berria datozen 8 urteetarako jasotzen du eta, bestetik, Ponderazio koefizienteak, bai erabilera nagusiaren arabera, bai kokapena kontuan izanda.

II.- Dokumentu hori jendaurrean erakustea HOGEITA HAMAR egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen duten egunetik hasita, alegazioak eta iradokizunak jasotzeko.

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da HAPOren egokitzapen dokumentua, goian aipatutako eraginetarako.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziuhtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko otsailaren 5ean.

O.E.

Alkatea

Kodea	H21/00139	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/ots./05	CUDO	000.0055.AAAAKVTW.L.e0iY
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAKVTW.L.e0iY		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

